



**UPV/EHUko ZUZENBIDE FAKULTATEKO  
ATALEKO BATZARRAK HARTUTAKO  
ERABAKIAK 2011ko EKAINAREN 30ean  
EGINIKO OHIKO BATZARREAN  
(1/2011)**

**1.- ATALEKO BATZARRA ERATZEA**

Baiespenez, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Zuzenbide Fakultateko Ataleko Batzarra eratzea erabaki da.

**2.- ATALEKO BATZARRAREN ARAUDIA IDAZTEA**

Baiespenez erabaki da, behin-behinean, Ataleko Batzarrak Zuzenbide Fakultatearen araudian (EHAA, 85. zk. 2010.05.10) Fakultateko Batzarrerako aurrez ikusitako araubide juridikoa betetzea; izan ere, ez da Ataleko Batzarrerako araudirik egin, ez eta onetsi ere.

Halaber, baiespenez, Batzordea eratzea erabaki da, honetarako: batetik, Ataleko Batzarraren araudia idaztea, bere lana Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Estatutuen Garapenerako Batzordearekin koordinatuta; bestetik, Zuzenbide Fakultateko araudian egokitzat jotzen dituen aldaketak aztertu eta proposatzea, Ataleko Batzarraren egiturari, eskumenei eta funtzionamenduari dagokienez. Batzorde hori honako hauek osatuko dute: José Manuel MARTÍN OSANTE (dekanotzako ordezkaria), Eduardo VÍRGALA FORURIA, Agustín GARCÍA URETA, Blanca GAMBOA URIBARREN, Javier GARCÍA MARTÍN, Jon Mirena LANDA GOROSTIZA eta Irene AYALA CADIÑANOS (irakasleen ordezkariak), Cristina GONZÁLEZ FERNÁNDEZ (AZLren ordezkaria) eta Ikasle Kontseiluko kidea den ikasle bat (zehazteko).

**3.- UPV/EHUko ZUZENBIDE FAKULTATEKO ATALAREN AURREKONTU-KUDEAKETA BEREIZIA EGITEKO ESKAERA**

Baieztapenez, hau erabaki da: Zuzenbide Fakultateko dekanu jaunari eskaera egingo zaio, Bizkaiko Campuseko errektoreorde jaunari dagokion baimena eska diezaion, Bizkaiko Atalak bere gain har ditzan bereizitako aurrekontu-kudeaketa eta administrazio-izapideak, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera.

**ACUERDOS ADOPTADOS POR LA JUNTA  
DE SECCIÓN DE LA FACULTAD DE DERECHO  
DE LA UPV/EHU EN SESIÓN ORDINARIA  
CELEBRADA EL 30 DE JUNIO DE 2011  
(1/2011)**

**1.- CONSTITUCIÓN JUNTA DE SECCIÓN**

Por asentimiento, se acuerda constituir la Junta de Sección de la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU).

**2.- REDACCIÓN DEL REGLAMENTO DE LA JUNTA DE SECCIÓN**

Por asentimiento, se acuerda que, transitoriamente, la Junta de Sección se someta al régimen jurídico previsto para la Junta de Facultad en el Reglamento de la Facultad de Derecho (BOP n. 85, 10.5.2010), dado que no se ha confeccionado, ni aprobado, un Reglamento de Junta de Sección.

Asimismo, por asentimiento, se acuerda constituir una Comisión que se encargue, por una parte, de redactar un Reglamento de Junta de Sección, coordinando su labor con la Comisión de Desarrollo Estatutario de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) y, por otra parte, de estudiar y proponer aquellas modificaciones que estime oportunas en el Reglamento de la Facultad de Derecho, en lo que respecta a la estructura, competencias y funcionamiento de la Junta de Sección. Esta Comisión estará integrada por: José Manuel MARTÍN OSANTE (representante del Decanato), Eduardo VÍRGALA FORURIA, Agustín GARCÍA URETA, Javier GARCÍA MARTÍN, Blanca GAMBOA URIBARREN, Jon Mirena LANDA GOROSTIZA e Irene AYALA CADIÑANOS (representación del profesorado), Cristina GONZÁLEZ FERNÁNDEZ (representante del P.A.S.) y un/a alumno/a miembro del Consejo de Estudiantes, por determinar.

**3.- SOLICITUD DE GESTIÓN PRESUPUESTARIA DIFERENCIADA DE LA SECCIÓN DE LA FACULTAD DE DERECHO DE LA UPV/EHU**

Por asentimiento, se acuerda interesar al Sr. Decano de la Facultad de Derecho que proceda a solicitar del Sr. Vicerrector de Campus de Bizkaia la correspondiente autorización para que la Sección de Bizkaia asuma las tramitaciones administrativas y la gestión presupuestaria diferenciada, a partir del 1 de enero de 2012.

Leioa, 2011ko uztailaren 20a  
Leioa, 20 de julio de 2011



IDAZKARIAK/EL SECRETARIO

Sin./Fdo.: Igor Minteguia Arregui